

Binilozko diskoak
Inoiz joan ez den
euskarria itzuli
egin da

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Denboraren makina
Cyrano de Bergerac-en
benetako historia

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Mahai-ingurua

Generoa & bertsolaritza

Generoak bertsolaritzan duen eragina aztertu genuen apirilaren 26an, Lugaritz kultur etxean (Donostia) egindako mahai-inguruan. Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Jon Maia eta Unai Muñoz aritu ziren mahaitik, eta entzuleak oso kualifikatuak zirenez, hainbat galdera eta ekarpen egin zituzten. Mami hartatik ideia nagusi batzuk bildu ditugu hemen, eta sakondu nahi duzuenek www.bertsoa.com webgunean duzue mahai-inguru osoa ikusgai, baita www.argia.com helbidean testu osoa eta pasarte onenen bideoa ere.





Konplexu eta estereotipoak hausteko ordua

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Nagore Lozano

Saioetan normalean emakume bakarrak kantatzeak nola eragiten du emakume horrengan eta oholtzako gainerako gizonengan?

JON MAIA. Nik ez dut oholtza gainean horren eraginik sentitzen. Baina kartel bat ikusi eta oso kartel “maskulinoa” dela pentsatzen dut askotan. Eta “maskulinoa” ez dut juzgatzen denak mutilak direlako bakarrik, zer mutil klase diren aztertuta ere bai. Nahiz eta sei gizonezko izan, kartel horretan ez dauden beste lau balira, beste perfil edo sentsibiltate batekoak, pentsatuko nuke kartel horrek baduela bere feminitatea.

ONINTZA ENBEITA. Saio bat egiteko deitzen dizutenean onena da ez pentsatzea neska zarelako deitu dizutela, hor dena okertzen hasten baita. Sekulako pisua geratzen da geure gain, badirudi ordezkatu behar dituzula ez dakit zenbat lagun lau bertsoan, eta hori ezinezkoa da. Zu zu zara, eta zeuretik kantatu behar

duzu. Batzuetan kantatzerakoan pentsatzen dut “esango nuke halako astakeria bat”, ahora etorri eta botako nuke, eta gero pentsatzen dut “bai, ederra imajina, neska batek emateko, bat etorri eta hau esan...”. Baina beno, ni horrelakoa naiz! Eta badakit Maialen ez dela horrelakoa, askoz diskretoagoa da, bi aldiz pentsatuta egiten du berba... Nik *rrrrra* botatzen dut, baina askotan moztu egiten dut nire burua, “imajina hori emango dut nik? Hori da nesken imajina?”. Beno, ba zer arraio, nire imajina bai! Baina presio hori muga bat da kantatzerakoan eta oraindik salto txiki bat dugu emateko.

MAIALEN LUJANBIO. Azken aldian sentitzen ari naiz sormen aldetik ere traba izan daitekeela saioko emakume bakarra izatea. Askotan gai bat planteatzen dute emakumearen rolarekin zerikusia duena, eta aukeratu beharrean ikusten duzu zure burua: bertsoan gaiaren plan-

teamendua bera kritikatu, edo gai horretan sartu eta saiatu umorea egiten. Kinka horretan sentitu izan naiz eta sorkuntzaren kontra-koa dela esango nuke, ze zure ideia brillante, graziosoak bota beharrean, sakrifikatu egiten duzu ideia hori, argi geratu dadin planteamenduarekin ez zaudela ados. Ideologia lehenesteko ideia sakrifikatzen duzu. Horren erremedioa da emakume gehiago egotea oholztan. Emakume asko dagoenean eta bakoitzak bere izaera lasai azal dezakeenean, ez da beldurrik izango emakumeez entzuten den gauza bakarria pertsona baten ahotik bakarrik entzungo dela, egin zenezake pertsonaia bat nahi bezain muturrekoa, lasaitasuna duzulako beste batek jokatu duela beste paper bat, moderatuagoa-edo.

Politikoki zuzena da saio bat antolatzerakoan emakume bat sartzea. Baina zergatik bakarria? Maila al da arazoa?

UNAI MUÑOA. Ez da arrazoi nagusietako bat, baina gaur egun bertsolaritzan mailak oso bereizita daude eta sozialki goi mailakotzat identifikatzen den bertsolaritza horretan emakumezkoen kopurua mugatua da. Antolatzaile batek punta-puntako saioa antolatu nahi duenean eta irakurtzen dituen Lan-kuko zerrendak, A mailan edo B mailan dauden emakumeak ez dira asko. Beherago jotzen badugu konturatzen gara emakumeen presentzia askoz handiagoa dela.

M. LUJANBIO. Nik uste zenbakien kontu hori ondorioa dela, jatorrira begiratu behar dela. Begiratu behar dugu gizartearen erdia izanik, zergatik diren hain gutxi kantuan ari diren emakumeak, gizonezkoekin konparatuta. Hor atzera begiratu behar dugu, heziketara eta gure gizarte ohituretara. Batetik espazio publikoa gizonezkoena izan da, eta espazio pribatua emakumeena. Emakumeen hitzari eta ekintzari ez zaio garrantzirik eman izan sozialki, plazan emakumea ez da protagonista izan, ez da erdigunea izan. Bertso eskoletan 15-16 urte dituzten neska askok utzi egiten dute, ez dutelako euren burua ikusten berrehun pertsonako plaza baten aurrean hizketarako gai. Hori kirolean eta beste hamaika aktibitateetan pasatzen da.

U. MUÑOA. Maialenek esandakoarekin bat egiten dut. Ni hezkuntza arautuan nabil bertso-laritzara irakasten eta nabari da. Sentsazioa dut oso txikitatik neskekin askoz exigenteagoak garela. Irakasleekin komentatu izan dut neska bat ikasle txarra izateak txokatu egiten duela, neska batek letra txarra izateak txokatzen du edo jolas garaitik lokatzez zikinduta etortzeak. Neskak emaitza onak lortu behar ditu. Mutilek tarte gehiago daukate. Neskek txikitatik garatzen dute autoexigentzia maila bat,

segurtasun falta asko ekartzen duena. Jendaurrera zoazenean, oso ziur egon behar duzu egingo duzun hori ongi egingo duzunaz, beti ikasi duzulako gauzak perfektu egiten, hori eskatu zaizulako beti. Eta juxtu bertsoa horretarako txarrena da: zuk hitzaldi bat prestatu dezakezu oso ondo baina bertsotan inprobisazioaz ari gara, bat-batekotasunaz, eta zure buruaz oso ziur egon behar duzu. Uste dut emakumeak erakutsi dioten segurtasun falta hori baduela eta horrek zuzenean eragiten diola oholta gainean pausoa emateko. Gaur egun bertso eskoletan neskek kopuruz gehiago dira, baina oholtzara jauzia ematen dutenen artean mutilak dira gehiago. Eta ez da gaitasun problema, nik ditudan ikasleetan normalean neskek azkarrago eboluzionatzen dute.

M. LUJANBIO. Neskek perfektzionistak dira auto-suntsiketaraino, eta bertsolaritzan, gainera, ez dagokien mundu batera sartu behar dute. Emakumeengan gaizki ikusia izan da nabarmentzea. Eta bertsolaritza zerbait bada, nabarmentzea da. Jende aurrean jarri eta zure hitzaz ziur egotea. Horiek dira neskekin asko lantzen ez diren bi balore. Berdintasunarekin arriskua dago numeroetan arreata jarri eta horrekin konformatzekoa. Lagunartean, lantaldeetan eta abar nahiz eta kopuru bera egon, niretzat gakoa da batzuen eta besteen hitzak ez duela pisu bera.

Mattin gizarajoa

Entzuleen artetik urte askoan feminismoaren inguruan lan egin duen emakume batek kontatu du bertsolaritzarekin izandako esperientzia gazigozoa: "1978an Udako Euskal Unibertsitatean, Iruñean, bertso afari bat izan zen. Pena dut bertsolarien izenak ahaztu baititut. Bertsolari txiki bat, txapela handi batekin [Mattin! erantzun dio publikoak], eta gizon polita, benetan hunkigarria aurkitzen banuen ere, ezin dituzue imaginatu kantatu zituenak. Ez nuen negar egin, baina errabia, pena ematen zidan haiek entzuteak. Bere diskurtsoa eta gai jarzaillearena terribleren ziren, izugarri matxistak. Saio ostean emakume batzuk bildu ginen, sekulako kartelak egin genituen eta Larraona osoa haiekin josi genuen. Mattinen kontra, gizarajoa! Hurrengo egunean bilera bat antolatu zen eta 69 pertsona bildu ginen, gizonak gehiago emakumeak baino. Hor erabaki zen hurrengo urtean feminismoari buruzko ikastaroa ematea".

[Entzuleei ireki zaie txanda, eta iritsi da lehen galdera] Bertsozale Elkartean kopuruak nola-koak dira?

M. LUJANBIO. Orain ari gara egiten azterketa bat Elkartean, eta gizon eta emakumeen partehartzea nahiko orekatua da. Baina erabaki postuetan, zuzendaritzetan, eta muinekoen diren karguetan gehiengoak gizonezkoak dira.

[Entzuleen artetik iritsi da hurrengo galdera ere] Emakumeen eguneroko bizitzako gaiak jarriko balira, hain onak izango zinatekete gizonak?

U. MUÑOA. Ziur aski ez. Nik sinisten dut guk geure maskulinitatea landu behar genukeela eta niri maskulino izateak modu negatiboa ere eragiten didala. Hori oso nabaria da mundu sentimentalean. Niri izugarri kostatzen zait sentimenduak adieraztea. Bertsolaritzak gizartearen inertzia jarraitzen du, eta gaiak hartzen ditu gizartearen gaurkotasunetik. Hau aldatu nahi badugu gai jartzaileetara asko jo beharko dugu, eta eztabaida hau eurei ere helarazi genero ikuspegia kontuan har dezaten.

O. ENBEITA. Nik pentsatu nahi dut gizonak orain bezain onak izango liratekeela beste gai batzuk jarrita ere. Baina geure buruari autokritika eginda, uste dut badugula konplexu txiki bat neskok. Askotan pentsatu izan dugu geure gaiei buruz kantatzen ari bagara jendea aspertu egingo dugula. Badira gai batzuk guretzat egunerokoak, lagunartean komentatzen direnak eta pentsatu izan dugu areto batera igo eta horretaz ari bagara jendea aspertu egingo dela. Hor salto bat dugu emateko, geuk kendu behar diogu geure buruari konplexu hori eta gai batzuei buruz lasai jardun. Zeren futbolari buruz ehun mila aldiz jardunda jendea ez bada aspertu, gure gaiekin ere ez luke aspertu behar!

U. MUÑOA. Gaien terrenora goazenean bada nolabaiteko botere posizio bat, agian inkontzientea “Zu gizonezkoen mundura zatoz, eta makurtu egin beharko zara gure gaietara”. Eta integrazioa hortik bideratzen da. Aurrera begira, emakumearen papera izan daiteke, Onintzak esan bezala, konplexuak galtzea, baina garbi edukita botere borroka ere badela. Ni bertso bazkari batean nagoeanean, eta nire kantukidea futbolari buruz hasten zaidanean —ni oso mutila izango naiz baina futbola ez dut kontrolatzen—, protokolozko bi edo hiru bertso botako ditut, eta segituan aterako dut nik kontrolatzen dudana beste gai bat. Hor dago borroka. Agian geroago tokatuko da biok bat gatozen gai bat eta hor luze jardungo dugu. Emakumeen papera ere botere borroka horretatik ulertu daiteke, “bai, zu gizona zara eta gai batzuk kontrolatzen dituzu, gizonezkoen plazan gaude, nahi



Lau mahaikideak: Maialen Lujanbio, emakume bertsolarien erreferente nagusia; Unai Muñoz, bere burua lantzerakoan genero ikuspegia oso kontuan duen bertsolaria; Onintza Enbeita, Kabareta emankizuneko kidea eta Jon Maia, bertsolari eta etxeko-gizon lanak uztartzen dituen.

duzuna, baina ni borrokatzera nator, gaiak ere nire terrenora ekartzeko eta nire ikuspuntutik kantatu ahal izateko”.

Aurrera begira nondik jo behar da?

U. MUÑOA. Gizonezkook egin behar genuke gure generoaren irakurketa ere. Eta bukatuko dut gaurko nire hitzarekin, botere borrokarekin. Uste dut lortu behar dugula bereziki emakumeak kontzientizatzea, eurak direlako alde kaltetua. Ezin da itxaron inertziak eta enpatiak zer sortuko duten, bideak ezin du izan eskatzea, alegia “lortu behar dugu gizonezkoen enpatia, eta gizonezkoen hausnarketa...”. Garbi izan behar dugu botere espazioak borrokatu egiten direla eta emakumeak zer borrokatu asko duela, baita bertsolaritzan ere.

J. MAIA. Naturaltasunaren bila jo behar genuke. Lotsatuta, beldurrez, korrekzioaren mugari begira... bertsolariak ezin du horrela jardun. Naturaltasuna bilatu eta eragin egin behar da, adibidez gai aldetik batzuei eta besteei zer rol eman erabakitzerakoan. Botere guneetan probokatu egin beharko da emakumeen presentzia, perspektiba diferentea ekarriko duelako. Gauzak ez dira bakarrik gertatzen. Pertsonak euren kasa iristen dira gogoeta batzuetara, baina aldaketak estrukturalak dira.

O. ENBEITA. Baikorra naiz, pauso asko eman dira eta geure artean asko hitz egin dugu honetaz. Horrek esan nahi du ardura badagoela eta kontziente garela. Kabareta emanaldiarekin oso sorpresa ona hartu dut urte eta erdi honetan: entzuleak espero baino kontzienteagoa dira gai honekin. Gure barneko mugak apurtzeko ordua da.

M. LUJANBIO. Bertsolaritza oso eremu interesgarria da gai hau lantzeko, jendea sentsiblea delako. Jendeak oso jarrera ona du eta luxuzko territoriotxo bat da. Pertsonalki eta sormen mailan, nire helburua da inertziak, inkontzienteki ateratzen zaizkigun jarrera horiek detektatzea eta etetea. Bertsozale Elkartearen generoa aztertuko duen talde bat sortzeaz da eta bertso eskoletan ere landu beharreko gaia da. Baikorra izateko motiboak badira, baina ikusi behar da bizitzaren faseak aurrera joan ahala zer gertatzen den, gauden emakume bertsolari denak gazteak garelako. ■